



BERMEOKO GAZTEEN LOKALEN ALKARBIZITZARAKO GIDA

Gazteriaren aisialdiaren ereduaren baitan lokalen fenomenoak hazkunde nabaria bizi izan dau azken urteotan. Hainbat dira lokal horreen baldintzak zein erabilerak eta Bermeoko Udalak gazteen lokalen erabilera horreek aztertzeko eta gitxiengo batzuk zehazteko beharra ikusi dau.

Lokalen fenomenoaren inguruan errealidade asko existitzen dira, bereziki gazte erabiltzaile, lokalen jaube eta inguruko auzokideena. Horregaitik, alkarbizitzarako gida hau herritarrakaz batera sortu dogu.

Esku artean daukazun dokumentua, modu parte hartzailean Bermeoko gazteen lokalen erabilera egokia aurrera eramateko gidea da. Gida honen helburu nagusia lokalen erabiltzaile eta auzokideen arteko alkarbizitza hobetzea eta segurtasun arazoak ekiditea da.

Gida honela dago banatuta: oinarrizko baldintzak (erregistroa, gazte lokalek bete beharreko gitxieneko baldintzak eta alkarbizitzarako gitxieneko baldintzak), administrazio arloko gomendioak, bizigarritasun gomendioak, osasunerako gomendioak, segurtasun arlokoak, alkarbizitzarako gomendioak eta drogen kontsumoari buruz kontuan izatekoak.

Gida hau alkarbizitzarako oinarria da. Egokiena eta komenigarriena lokalaren erabilera (ordutegia, soinua...) auzokide eta gazteen artean adostea da. Azpimarratzekoa da, bestalde, lokalen jaubeen inplikazioa oinarrizkoa izan behar dala lokalaren segurtasun baldintzak bermatzeko.



OINARRIZKO BALDINTZAK

1. ERREGISTROA

Bermeoko Udalarari lokala erabilten dauen gazte taldearen arduradunaren kontaktua adierazoko jako eta baita lokalaren jaubearena be. Horretarako, jagokon eranskina betetea eta udalean entregatzea derrigorrezkoa da. Eranskin hori Bermeoko Herritarrentzako @rreta Zerbitzuan (Berh@z - Ertzilla kalea 6-8) hartu eta entregatu beharko da.

Berh@z bulegoaren ordutegia:

Astelehenetik barikura: 08:30 – 14:30

Martitzen eta eguenetan: 16:30 – 19:00 (Udan izan ezean)

Zapatuetan: 10:00 – 13:00

2. GAZTE LOKALEK BETE BEHARREKO GITXIENEO BALDINTZAK

Lokal guztiak ez dira egokiak jentea bertan egoteko, izan be, segurtasun eta higienearen ganeko gitxieneko baldintzak bete behar dabez. Oinarrizko baldintza horreek lokalaren jaubearen ardurea izango dira. Lokal horreek arautze aldera, honako gitxieneko baldintzak bete beharko dabez:

- **Argia:** derrigorrezkoa da instalazino elektrikoa egoera onean egotea eta ziurtagiri ofiziala izatea, instalatzaile baimendu batek sinatua (*boletina*).
- **Ura:** derrigorrezkoa da ur-hartune bat eta kontagailua izatea, gitxienez, garbitasun lanak eta erabiltzaileen kontsumoa ziurtatzeko.
- **Komuna:** bainugelek komuna eta konketea izan behar dabe, aireztatze naturalagaz edo kanpora botaten dauen erauzgailuagaz (estraktorea).
- **Su-itzalgailuak (*extintoreak*):** 21A-113B gitxieneko ahalmena daukien su-itzalgailu bi jarriko dira, bat hautsezkoa sarrera ondoan, eta beste bat CO2koa koadru elektrikoaren alboan. Esku-eskura egon beharko dira eta urtero errebisatu beharko dira.
- **Larrialdietako argiak:** larrialdietako argiak ipini behar dira urteerako ate ganean, lokalaren gela bakoitzean eta koadru elektrikoaren ondoan.
- **Edukierea:** gehienez baimendutako edukierea edo aforoa errespetatu behar da, nahiz eta lokalean erabiltzaile gehiago izan inoiz ezin izango da aldi berean aforoa pasa. Behe solairuetan eta erabilera publikoa daukien gunetan, pertsona bat/2 m²-ko. (Adibidez, 50 m²-ko txoko baten, gehienez 25 pertsona egon daitezke batera). Edukierea bermatzeko, sarreratik hurre karteltxu bat jarri beharko da begi-bistan lokalaren gehienezko edukiera erakusteko.
- **Altuereta, sarrerea eta atea:** lokalaren gitxieneko altuereta 2,50 metrokoa izan behar da. Alde Zaharrean 2,20 metrokoa. Sarrerako atea gitxienez 80 cm-ko zabalera izan behar dau. Edozelan be, lokalek sarrerea egokituta izan beharko dabe, segurtasun eta irisgarritasun neurriak ziurtatzeko.



- **Larrialdietako urteerea:** lokalak sarrera/urteera bakarria euki ahal izateko, barruko edozein puntutik kalerainoko distantzia 25 metrokoa baino laburragoa izan beharko da. Osterantzean, aparteko larrialditarako ate bat jarri beharko da.
- **Asegurua:** jaubeek zein gazteek arrisku anitzeko aseguruia euki behar dabe. Aseguru honeetako erantzunkizun zibileko gitxieneko estaldurea 100.000 €-koa izan beharko da. Gazteen kasuan, edukia (*contenido*) eta jardueraren erantzukizun zibila estaltzen dauan aseguruia izan beharko dabe. Jaubeen kasuan, aldiz, edukitzailea (*continente*) eta bere ondoriozko erantzukizun zibila babesten dauen aseguruia kontratatu beharko dabe.
- **Osasuna:** usain txarrik ez egoteko, lokala aldizka aireatu beharko da eta aireztatze sistema bat euki beharko dau, sarrerako atez gain. Adibidez, leihoak, lamak, saretxuak, e.a.

3. ALKARBIZITZARAKO GITXIENEN BALDINTZAK

- Lokaletik altzariak bota gura izanez gero, udalaren batze zerbitzura (94 612 11 77) deitu eta martitzen gauean atara beharko dira.
- **Zaratak:**
 - Etxe baterako normaltzat hartu leikezan dezibelioak (dB) ez gainditzea, etxebizitza hurbilenean neurtuta (Zarata eta Dardarei buruzko udal Araudiaren arabera):

7:00etatik 22:00etara = 35 dB-A
22:00etatik 7:00etara = 30 dB-A
 - Musikearen eta aparatuen bolumena jaitsi beharko da 22:00etatik aurrera, eta amatatuta egon beharko dabe gaueko 23:00ak eta hurrengo eguneko goizeko 10:00ak bitartean.
 - Jai egunen kasuan, musikearen eta aparatuen bolumena 24:00ak arte luzatu ahalko da.
- **Ordutegia:** astegunetan lokala hutsik eta jarduera barik egon beharko litzateke 23:00etatik aurrera, asteburuetan (barikuak eta zapatuak) ordutegia 24:00ak arte luzatuko da. Jaien kasuan, ordutegia goizaldeko 02:00ak arte luzatuko da.

Udalean salaketa bat jasotzen danean, Udaltzaingoak jagokon txostena egingo dau eta salaketa benetakoa dala egiaztatuko da. Horrela izanik, Udalak arazoari konponbide bat emoteko prozedura jarriko dau martxan. Konponbiderik lortzen ez bada, Udalak puntuen sisteman oinarritutako zehapen araubidea ezarriko dau.



Gazteen lokalen funtzionamendu egokirako gomendioak batzen dira hemen. Aholku honeek lokalak erabiltzen dozezenen eta inguruan bizi diranen bizikidetza ziurtatzeko dira. Edozein zalantza edo gorabehera badaukazue, jarri hartu-emonetan udaletxeagaz. Gomendioak zelan bete daitezkezan laguntzen eta orientatzen saiatuko gara.

GOMENDIOAK

1. Kontratua

- Egokia izango litzateke alokatze edo lagapen kontratua izatea, jaubeek eta erabiltzaileek izenpetuta. Adinbakoen kasuan, gazteen tutore ardurea daukienez izenpetuko dabe.

2. Bizigarritasunerakoak

- Lokaletan ez da komeni etxebizitzaren ekipamentu propioirik egotea (ezkatza, oheak, e.a.).
- Ez da komeni material sugarririk erabiltea sabaia edota hormak apaintzeko.

3. Osasunerakoak

- Lokala baliabide eta sarritasun egokiaz garbituko da zikinkeriarik batu ez daiten (sastarrak eta beste batzuk).
- Animaliak ezin izango dira bakarrik egon lokalaren barruan.
- Lehen laguntzetarako botikina edukitzea komenigarria da.
- Lokala erraz garbitzeko eta desinfektatzeko materialez hornituta egongo da.
- Lokalaren hormak konponduta, garbi eta margotuta egotea komenigarria da bertan dagozan gazteen osasun segurtasuna baldintzatzeko asmoz.

4. Segurtasun arlokoak

- Pertsonak lokal barruan dagozan bitartean, ez da komenigarria urteerako atea giltzagaz barrutik ixtea edo pertsianak jaistea.
- Ezin da sukaldatu ezta surik egin lokal barruan. Ezkatza jarri gura izan ezkerro, jagokozan neurri zuzentzaileak bete beharko dira (tximinia, erauzgailua (estraktorea)...) eta udalean jagokon jarduera baimena eskatu. Lokal honeetan mikrouhin-labea bakarrik onartzen da janaria berotzeko eta hozkailua.
- Likido edo material sukoiak (inflamableak) (butano bonbonak, egunkariak eta aldizkariak, behar ez diran altzariak...) lokal barruan batzea ekidin beharko da.



5. Alkarbizitzarakoak

Alkarbizitzaz gozatzeko bai jaubeek, auzokoek zein gazteek buruz jokatzea ezinbestekoa da. Bermeoko Gazteentzako Informazio Zerbitzura (GIZ - Irakaskintza kalea 14-16) hurreratzen dan edozein pertsonari gida honetan agertzen diran alkarbizitzarako gomendioen eta betebeharren barri emongo deusagu.

- Lokalaren kanpoko aldea herritar guztiena izanda, inguruak baldintza higieniko egokietan mantendu behar dira guztien artean. Era berean, jarduerak beti izango da lokalaren barruan.
- **Zaratak sortzeari buruz:** zaratea da auzokoak arazorik gehien sortzen dauen arazoia. Halanda ze, kontu berezia euki behar da zaratarik ez sortzeko, bai bolumenari jagokonez eta bai sortzen diran orduagaitik be. Horren harira, hau gomendatzen da:
 - Telebistak, musika tresnak, bozgorailuak, e.a. ate eta leihoetatik urruntzea.
 - Abestiek, txistuek, aldarriek... eragindako zaratak ekiditea edo ebitatzea.
 - Pertsianen itxi eta zabaltze eten bakoa ekiditea.
 - Lokalaren kanpo aldean edo inguruetan jente kontzentrazioak ekiditea.
 - Lokalaren sarreran motordun ibilgailuek zarata larregi ataratea ekiditea.
 - Pertsonak sartzean eta urtetean kontuz ibiltea zarateagaz eta jente kontzentrazioak kanpo aldean ekiditea komenigarria da.

6. Drogen kontsumoari buruz kontuan izatekoak:

- Lonjak astialdirako lekuak dira eta ingurune horretan, posiblea da droga kontsumoa izatea. Animatzen zaituegu horretaz berba egiten eta batzarrean erabagi daizuen zein lonja eredu gura dozuen jarraitu, pertsona guztien eritxiak errespetatuz. Bermeoko Udaletik animatzen zaituegu, erabagi daizuen lonjea droga legal edo ilegaletatik kanpoko eremua izatea, eta erreten ez dauenari zor jakon errespetuagaitik, auzokoek barruan dirala, ke bako gune bat be izan daitela.
- Drogak hartzea edo ez, pertsona bakotxaren esku dago, askatasunez erabagi behar dan gaia da, pertsona nagusiak horretaz informatu eta gero. Droga horreek hartzeak emoten dauen plazerra eta hartze horrek eragin leikezan kalteak baloratu behar dira eta horren ondoriozko erabagi bat hartu.
- Adin txikikoak bazarie lonjan, edo adin txikiko inor egon ezkerok lokalean, kontuan izan behar da, oraindik guztiz garatu ez diran pertsonak drogak hartzea arriskuak sortzen dauzala. **Adin txikiko bati droga legalak emotea legez zigortuta dago; eta droga ilegalak emotea beti da delitua, eta larriagotu egiten dau zigorra, ganera.**



INFORMAZINO GEHIAGORAKO

GAZTEENTZAKO INFORMAZINO ZERBITZUA (GIZ)

Gizarte eta Kultura Etxea (1. solairua)

Irakaskintza 14-16 – 48370 Bermeo

Tel.: 94 617 91 58

e-posta: giz@bermeo.org

Webgunea: www.giz.bermeo.org

GIZen ordutegia:

Goizez: 12:00 - 14:00 (astelehenetan izan ezean)

Arratsaldez: 16:00 - 20:00 (barikuetan izan ezean)

Udan: Astelehenetik barikura: 10:00 – 14:00

BERMEOKO UDALA

Tel.: 010 (94 617 91 00)

Webgunea: www.bermeokoudala.net